

**1-Zer ezartzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 30. artikuluan?**

- a) Baliiodunak dira egun guztietako ordu guztiak, abuztukoak izan ezik.
- b) Baliiodunak dira egun guztietako 08:00etatik 11:00etara bitarteko orduak.
- c) Baliiodunak dira egun baliiodun bateko ordu guztiak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**2-Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 31. artikuluan ezarritakoarekin bat, erregistro elektronikoaren funtzionamenduak oro har zertarako aukera emango du?**

- a) Dokumentuak aurkezteko urteko egun guztietan, eguneko hogeita lau orduetan.
- b) Dokumentuak aurkezteko urteko egun guztietan, abuztuan izan ezik.
- c) Dokumentuak aurkezteko urteko egun guztietan, 08:00etatik 11:00etara.
- d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.

**3-Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 54. artikulua arabera, nola hasiko da administrazio prozedura?**

- a) Interesdunak eskatuta, beti.
- b) Ofizioz, beti.
- c) Administrazio publiko baten eskariz.
- d) Ofizioz edo interesdunak eskaturik.

**4-Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan arautzen denarekin bat, zer da atzera egitea?**

- a) Ukatutako eskaera bat aurkaratzea.
- b) Ukatutako zerbait eskatzea.
- c) Prozedura izapidetzen jarraitzeari uko egitea.
- d) Administrazio-errekurtso bat aurkeztea.

**5-Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, nor dira interesdun administrazio-prozeduran?**

- a) Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.
- b) Prozedura haiek ez hasi arren, hartan hartuko den erabakiak uki ditzakeen eskubideak dituztenak.
- c) Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**6-Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, edozein errekurtsoren ebazpena dela-eta, zein da erantzun zuzena?**

- a) Atzera botako du.
- b) Ondorioak berretsiko ditu.
- c) Errekurtsoran azaldutako eskaerak guztiz edo partez baietsiko dira, ezetsiko dira edo errekurtsoa ez onartzea erabakiko da.
- d) Deuseztatu egingo du.

**7-Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen du kontratu publikoek oro har izaera formala dutela. Egia al da?**

- a) Ez.
- b) Bai.
- c) Ez, hitzezkoak dira.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**8-Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 8ko 6/1989 Legearen arabera, zer da funtzionario publikoentzat eginkizunak betetzean indarrean den ordenamendu juridikoa betetzea?**

- a) Betebehar bat.
- b) Irizpide bat.
- c) Ahalmen bat.
- d) Posibilitate bat.

**9-Euskararen Erabilera Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera, zer da EAEko herritar guztiek bi hizkuntza ofizialak ahoz zein idatziz ezagutzea?**

- a) Posibilitate bat.
- b) Eskubide bat.
- c) Ahalmen bat.
- d) Aurreko bat bera ere ez da zuzena.

**10-Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauarekin bat, zein da/dira Bizkaiko Lurralde Historikoko ordezkartza- eta partaidetza-organo gorenak?**

- a) Foru diputatuak.
- b) Batzar Nagusiak.
- c) Ahaldun Nagusia.
- d) Bizkaiko Foru Aldundian ez dago ordezkartza- eta partaidetza-organorik.

**11-Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren arabera, zeini dagokio/dagokie Lurralde Historikoaren eta Foru Aldundiaren ordezkartza?**

- a) Foru diputatuei.
- b) Ahaldun Nagusiari.
- c) Eusko Jaurlaritzari.
- d) Eusko Legebiltzarrari.

**12-Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren arabera, zer dira foru-arauak?**

- a) Administrazio-errekurtsioak.
- b) Xedapen orokorrak.
- c) Txosten teknikoak.
- d) Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren erabakiak.

**13-Haueetatik zein da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen xedea?**

- a) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea.
- b) Genero-berdintasunaren arloko gaiei buruzko gomendioak ezartzea.
- c) Genero-berdintasunaren arloko gaiei buruzko protokoloak ezartzea.
- d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.

**14-Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, haueetatik zeini aplikatzen zaio/zaie foru-araua?**

- a) Bizkaiko Foru Aldundiari.
- b) Foru-erakunde autonomoei, foru-erakunde publiko enpresarialeiei, merkataritzako foru-sozietateei, foru-fundazioei eta foru-partzuergoei eta aurrekoen artean aipatu ez diren zuzenbide publikoko beste foru-erakundeei.
- c) Bizkaiko Batzar Nagusiei, administrazio zuzenbidearen peko beren jardueri dagokienez.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**15-Euskal Autonomi Estatutuaren arabera, arlo hauetatik zeinetan du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa?**

- a) Ingurumenean eta ekologian.
- b) Nahitaezko desjabetzean, kontratu eta administrazio-emakidetan, bere eskumenen eremuan, eta EAeko Administrazioaren erantzukizun-sisteman.
- c) EAeko arrantza-sektorearen antolamenduan.
- d) Gizarte-laguntzan.

**16-Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen arabera, zein organoren pean dago zuzenean Herri Kontuen Euskal Epaitegia?**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren pean.
- b) Auzitegi Gorenaren pean.
- c) Eusko Legebiltzarraren pean.
- d) Foru-aldundien pean.

**17-Hauetatik zein EZ da Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistema arautzen duten printzipioetako bat?**

- a) Berdintasuna eta ekitatea.
- b) Gailentasuna.
- c) Hurbiltasuna.
- d) Unibertsaltasuna.

**18-Prestazio-mota hauetatik zein sartuko dira, gutxienez, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemari?**

- a) Prestazio teknologikoak, ekonomikoak eta teknikoak.
- b) Prestazio sozio-juridikoak eta psiko-sozialak.
- c) Prestazio teknikoak eta gizarte- eta hezkuntza-arlokoak.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**19-Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearekin bat, hauetatik zeini dagokie baloraziorako eta diagnostikorako tresna tekniko komunak arautzea?**

- a) Euskal herri-administrazioei, nola foru-administrazioei, hala udal-administrazioei..
- b) Eusko Jurlaritzari, gainerako euskal herri-administrazioekin koordinaturik, nola foru-administrazioekin hala udal-administrazioekin.
- c) Foru-aldundiei, zeinek proposamena Eusko Jurlaritzari aurkeztuko baitiote berrets eta behin betiko onets dezan.
- d) Estatuaren Administrazioari bakarrik

**20-Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenaren arabera, gizarte-larrialdiko egoeretan zein zerbitzuren bidez sartuko da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara?**

- a) Udalaren Gizarte Zerbitzuen edo Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuen bitartez.
- b) Gizarte-zerbitzu espezializatuen eta Segurtasun Indar eta Kidegoen bitartez.
- c) Bakarrik Udalaren Gizarte Zerbitzuen bidez.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**21-Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan araututako Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuak esleituta dituen gizarte-zerbitzuen prestazioak direla eta, hauetatik zein da erantzun zuzena?**

- a) Informazioa, premien hasierako balioespena eta jarraipen-balioespena, bitartekaritza eta arreta pertsonala.
- b) Informazioa, premien hasierako balioespena eta jarraipen-balioespena, diagnostikoa eta orientazioa.
- c) Informazioa, premien hasierako balioespena eta jarraipen-balioespena, diagnostikoa, orientazioa, lagun-egite soziala eta arlo psikosozialeko esku-hartzea.
- d) Ez dauka esleituta gizarte-zerbitzuen prestaziorik, urgentziazko garraio- ostatu- eta mantenu-prestazioak besterik ez du ematen.

**22-Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa dela-eta –Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan arautua–, hauen artean zein da zuzena?**

- a) Foru-eskumenekoa da.
- b) Udal-eskumenekoa da.
- c) Eusko Jurlaritzaren eskumenekoa da.
- d) Foru-eskumenekoa, udal-eskumenekoa edo Eusko Jurlaritzaren eskumenekoa da, kontuan hartuta zeinena den prestazioarekin lotu den zerbitzua.

**23-Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek arrazoizko epe baten barruan honako hau edukitzeko eskubidea dute:**

- a) Arretarako banakako plana.
- b) Laguntza-baliabideen katalogoa.
- c) Plan kolektibo espezializatua.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**24-Telelaguntza zerbitzuaren eskumena dela-eta, hauetatik zein da zuzena?**

- a) Eusko Jaurlaritzarena da.
- b) Foru-aldundiena da.
- c) Udalena da.
- d) Osakidetzarena da.

**25-Oinarrizko gizarte-zerbitzuei zein eginkizun esleitzen zaie edo zaizkie sarbide-prozedura arruntean?**

- a) Premia sozialen hasierako balioespena.
- b) Informazioa eta orientazioa.
- c) Gizarte-zerbitzu espezializatueta bideratzea..
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**26-Gizarte-zerbitzu espezializatuak hauetako baten balorazioa egiteko eskumena dute. Zein?**

- a) Gizarte-bazterketako egoerarena.
- b) Desgaitasunarena.
- c) Mendetasun-egoerarena.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**27-Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen arabera, hauetatik zein da erantzun zuzena ekimen sozialeko erakundeek dituzten ezaugarriak direla-eta?**

- a) Pribatuak, irabazi-asmorik gabeak eta borondatezko ekintzakoak dira;
- b) Pribatuak, irabazi-asmorik gabeak eta profesionalizatuak.
- c) Publikoak, irabazi-asmorik gabeak eta profesionalizatuak
- d) Publikoak, irabazi-asmorik gabeak eta borondatezko ekintzakoak dira;

**28-Gizarte-lanean etengabeko ebaluazioak funtsezko eginkizuna betetzen du; zein da horren arrazoia?**

- a) Aukera ematen du proposatutako planean lortutako aurrerapenak egiaztatzeko (onesteko edo gaitzesteko).
- b) Aukera ematen du lortutako emaitzak lortu nahi diren emaitzekin eta planteatutakoekin zein neurritan datozen bat egiaztatzeko.
- c) Aukera ematen du proposatutako helburuak zein neurritan lortu diren ebaluatzeko.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**29-Gizarte-langileak elkarrizketa profesionaletan izan behar dituen jarrerak direla eta, hauetatik zein da erantzun zuzena?**

- a) Begirunea eta onarpena.
- b) Enpatia eta sekretu profesionala.
- c) Indibidualizazioa eta autodeterminazioa.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**30-Txosten sozialak, zuzeneko behaketaren ondorio den aldetik, nola definitu daiteke?**

- a) Gizarte-langileak ematen duen dokumentua da, non esku-hartzean erabiliko diren baliabideak jasotzen baitira.
- b) Gizarte-langileak azterketaren eta hausnarketaren ondorioz ematen duen dokumentua da.
- c) Gizarte-langileak ematen duen dokumentua, zehaztutako helburu bat lortzeko azterketaren, balorazioaren eta irizpenaren ondoriozkoa.
- d) Gizarte-langileak bere iritzi profesionalen proposamen bat egiteko ematen duen dokumentua da.

**31-Gizarte-lanaren arloan, hauen artean zein jotzen da gainbegiratze-profesionalaren barruan sartzen dela?**

- a) Irakaskuntza eta etengabeko prestakuntza, elkarrekiko ikaste-prozesu baten barruan.
- b) Kalitateko zerbitzu eta esku-hartze profesionalak ziurtatzea.
- c) Integrazio teorikoa eta praktikoa erraztea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



**32-Teresa Rossell-en arabera, gizarte-laneko elkarrizketa zenbait fase dituen prozesua da; zein fasetan saiatu behar du gizarte-langileak elkarrizketatuak bere hitzetan adieraz dezan zer nahi duen?**

- a) Elkarrizketaren lehen fasean edo harrera-fasean.
- b) Esplorazio-fasean.
- c) Trukatze- edo gardentze-fasean.
- d) Azken fasean.

**33-Mary E. Richmond-ek baieztatzen duenez, hauetatik zein dira birgaitze-aktiboak familien kasuetan egiten den gizarte-lanean?**

- a) Esku-hartze profesionala onartzea eta aldatzeko motibazioa.
- b) Erresilientziarako gaitasuna.
- c) Familia-kohesioaren boterea eta afektua emateko gaitasuna.
- d) Laguntza-sareen euren mobilizazioa.

**34-Gizarte-lan Indibidualizatua dela eta, zein da erantzun zuzena?**

- a) Norbanakoa izateko eta diferentzia pertsonalak dituen gizaki baten moduan tratatua izateko eskubidea.
- b) Erabiltzaileak sentimenduak askatasunez adierazteko duen beharrezana aitortzea.
- c) Laguntza-prozesu bat, zeinaren bidez profesionalak zenbait teknika eta prozedura erabiliz gizabanakoaren baliabideak sustatzen baititu, dagoen egoera-arazoaren ondoriozko istiluak benetan gainditu ditzan.
- d) Adiskidantzakoa ez den erlazio profesionala da; izan ere, funtsezkoa dena erabiltzailearen ekintza estimulatzeko ematen zaion laguntza psikologikoa da.

**35-Gizarte-laneko elkarrizketak zenbait premisa aintzat izan behar dituen teknika profesionala da. Zein dira premisa horiek?**

- a) Giro lasaia, konfiantza-ingurunea sortzea eta helburu profesionala ezartzea.
- b) Giro lasaia sortzea; ahal dela galdera itxiak erabiliz eta aztergai dugun pertsonaren edo familiaren erantzunak bideratuz.
- c) Giro lasaia eta konfiantza-ingurunea sortzea; ahozko lengoaia zein ahozkoa ez dena aztertzea, eta elkarrizketaren garapena aztergai dugun pertsonak edo familiak ematen duen informazioaren arabera egokitzea.
- d) Espazio itxia eta bideratua, egiten den zerbitzuaren helburuak eta xedeak besterik lortu nahi ez duena.

**36-Gizarte-lanaren kode deontologikoaren arabera, hauen artean zein EZ da oinarrizko printzipio bat?**

- a) Duintasuna.
- b) Anaitasuna.
- c) Askatasuna.
- d) Berdintasuna.

**37-Honako hauen artean zein da historia sozialaren informazio sistematizagarria erregistratzen den gizarte-lanaren tresna espezifikoa?**

- a) Genograma.
- b) Esku-hartze sozialeko proiektua.
- c) Fitxa soziala.
- d) Banakako arreta programa.

**38-Gizarte-laneko profesionalak lan egiten duen erakundearen araudia, antolamendua eta funtzionamendua ezagutu behar ditu, eta haren helburuak bete; baldin eta helburuok lanbideko oinarrizko printzipioen guztiz edo partez kontrakoak badira, zer egin beharko du profesionalak?**

- a) Gizarte-lanaren arloko kode deontologikoak ezartzen duenarekin bat jardun.
- b) Lan egiten duen erakundearen eskakizunei erantzun.
- c) Elkargo profesionalari laguntza edo babes eskatu.
- d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**39-Gizarte-laneko lanbidearen oinarria dela eta, zein da aukera zuzena?**

- a) Praktikan eta diziplina akademikoan oinarritzen da.
- b) Administrazio publikoetan garatzen den lanean.
- c) Ikerketa indibidualizatuan.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**40- Zein da gizarte-lanaren xedea?**

- a) Gizabanakoak, taldeak edo komunitateak bizi duen egoera-arazoa.
- b) Beharrian sozialak eta baliabideak.
- c) Gizabanakoak, taldeak eta komunitateak.
- d) Azterketa, diagnostikoa, plangintza eta burutzea.

**41-Hauen artean zein dira gizarte-zerbitzuetako esku-hartzearen irizpideetan homogeneotasuna bermatzeko tresna tekniko komunak?**

- a) Fitxa soziala eta diagnostiko sozialeko tresna.
- b) Fitxa soziala eta gizarte-bazterketa baloratzeko tresna.
- c) Fitxa soziala, diagnostiko sozialeko tresna eta banakako arreta programa.
- d) Fitxa soziala eta diagnostiko sozialeko tresna eta gizarte-bazterketaren balorazioa.

**42-Zeren ondorioz hasten da gizarte-laneko profesionalaren eta pertsona edo familia-talde baten arteko laguntza-harremana?**

- a) Pertsonak edo familia-taldeak gizarte-langileari zuzendutako laguntza-eskaeraren ondorioz.
- b) Zerbitzuak beste instituzio batzuen komunikazioa jasotzearen ondorioz.
- c) Beste agente sozial batzuek edo bigarren mailako senideek jasotako komunikazioaren ondorioz.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**43-Gizarte-lan komunitarioa komunitatean abordatzeko prozesutzat jotzen dugu; prozesu horri dagokionez, zein da aukera zuzena?**

- a) Inguruneko egoerak aldatzeko beren irizpideak ezartzen dituzten profesionalek garatzen dute.
- b) Komunitatea detektatutako beharrianei erantzuteko helburu komunak lortzera bideratu nahi duten profesionalek lideratzen dute.
- c) Landa-inguruneko profesionalek garatzen dute.
- d) Inguruneko baliabideak minimizatu nahi dituzten profesionalek lideratzen dute.

**44-Gizarte-laneko garapen profesionalean, zertarako da beharrezkoa ebaluazioa?**

- a) Egoera-arazoaren hasierako diagnostiko bat egiteko
- b) Lan egiten dugun familia-unitateari informazio bat itzultzeko.
- c) Ekintzen balioari eta erabiltzaileek jasotzen dituzten zerbitzuen kalitateari buruzko datu errealak kalibratzeko eta lortzeko.
- d) Instituzioaren helburuak islatzeko.

**45-Zein printzipiotan oinarritzen da Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea?**

- a) Unibertsaltasuna mendetasun-egoeran dauden pertsona guztiak sartzean, berdintasun eraginkorreko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan
- b) Unibertsaltasuna mendetasun-egoeran dauden edo ez dauden pertsona guztiak sartzean, benetako berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan
- c) Unibertsaltasuna mendetasun-egoeran edo desgaitasun-egoeran dauden pertsona guztiak sartzean, benetako berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan
- d) Unibertsaltasuna ez da lege horren oinarritzko printzipio bat.

**46-Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera, zer baloratzen du mendetasun-egoeraren baremoak?**

- a) Pertsonak eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak bere kabuz egiteko gaitasuna izatea, eta, desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat bakarrik, laguntza behar izatea.
- b) Pertsonak eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak bere kabuz egiteko gaitasuna izatea, bai eta laguntza eta ikuskapena behar izatea ere, desgaitasun intelektuala edo gaixotasun mentala duten pertsonak egin ditzaten.
- c) Pertsonak eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak bere kabuz egiteko gaitasuna izatea, bai eta laguntza eta ikuskapena behar izatea ere, desgaitasun intelektuala duten baina inoiz ere gaixotasun mentalik ez duten pertsonak egin ditzaten.
- d) Pertsonak eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak bere kabuz egiteko gaitasuna izatea; baina ez laguntza eta ikuskapena behar izatea

**47-Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko urriaren 11ko 153/2016 Foru Dekretuaren arabera, non aurkeztu behar dira mendekotasunaren ebaluazio-prozedura hasteko eskaerak?**

- a) Erroldaturik dauden udalerriko oinarritzko gizarte-zerbitzuan edo Gizarte Ekintza Sailaren erregistroan, edo Bizkaiko Foru Aldundiko sailletako edozein erregistro nagusitan.
- b) Bizkaiko edozein udalerritako oinarritzko gizarte-zerbitzuan.
- c) Erroldaturik dauden udalerriko oinarritzko gizarte-zerbitzuan.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**48-Mendekotasun-egoera aitortzeko prozedura erregulatzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko urriaren 11ko 153/2016 Foru Dekretuaren arabera, nola berrikusiko da arreta emateko banakako programa?**

- a) Interesdunak, haren legezko ordezkariak duenak edo haren egitatezko zaintza egiten duenak eskatuz gero, eskaera behar bezala sinaturik eta berrikuspenaren arrazoia nahikoa egiaztatuz.
- b) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskatuz gero.
- c) Odolkidetasuneko lehen edo bigarren mailako edozein senidek eskatuta, beharrezko iristen diotenean.
- d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**49-Zer esan gura dugu «mendekotasun larria» aipatzen dugunean?**

- a) I. graduko mendekotasuna.
- b) II. graduko mendekotasuna.
- c) III. graduko mendekotasuna.
- d) Ez dator bat graduekin.

**50-Zertarako eskubidea dute mendekotasuna duten pertsonak?**

- a) Askatasunez erabakitzea egoitza-zentro batean sartu nahi duten.
- b) Proposatzen zaien arreta emateko banakako programa onartu ala ez erabakitzea.
- c) Bere ondare-eskubideak osotasunez erabiltzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**51-Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko 2016ko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren arabera, zer ume dira halako arretaren hartzaile?**

- a) 0-3 urteko haurrak, garapenean trastornoak dituztenak edo trastorno horiek izateko arriskuan daudenak.
- b) 0-3 urteko haurrak, garapenean trastornoak dituztenak eta gutxienez % 33ko desgaitasuna aitortua dutenak.
- c) 0-6 urteko haurrak, garapenean trastornoak dituztenak eta gutxienez % 33ko desgaitasuna eta mendekotasuneko I. gradua aitortua dutenak.
- d) 0-6 urteko haurrak, garapenean trastornoak dituztenak edo trastorno horiek izateko arriskuan daudenak.

**52-1991eko martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretuaren arabera, baliaezintasun-pentsioa, ekarpenezko ez den aldaeran, azkendu egingo da onuradunaren arabera. Zein dira hori gertatzeko inguruabarrak?**

- a) Legezko egoiliarren izaera galtzea.
- b) Daukan minusbaliotasuna edo gaixotasun kronikoa hobetzea, eta, horren ondorioz, % 65 baino gutxiagoko gradua izatea.
- c) Nahikoa errenta edo diru-sarrera izatea, 1991ko martxoaren 15eko 357/1991 Errege Dekretuaren 11. artikulua definitzen duenaren arabera.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**53-Kotizazio gabeko pentsioa jasotzen duen pertsona batek aldi berean jaso dezake Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsio bat. Zein egoeratan?**

- a) Kotizazio gabeko pentsioa baliaezintasunagatik jasotzen duenean eta Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioa zahartasunagatik.
- b) Kotizazio gabeko pentsioa erretiroagatik denean eta Gizarte Ongizateko Funtsarena gaixotasunagatik.
- c) Bai kotizazio gabeko pentsioa bai Gizarte Ongizateko Funtsarena baliaezintasunagatik eta gaixotasunagatik direnean, hurrenez hurren.
- d) Kotizazio gabeko pentsioa eta Gizarte Ongizateko Funtsaren pentsioa bateraezinak dira.

**54-Desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko 1999ko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren arabera, desgaitasun-gradua zehazteko, aldatu egingo da, hala dagokionean, eta faktore sozial osagarrien baremoan lorturiko puntuazioa gehituko zaio. Hala ere, zenbat puntu gehitu ahal zaizkio gehienez?**

- a) 15 puntu.
- b) 19 puntu.
- c) 10 puntu.
- d) 5 puntu.

**55-Zerekin da bateragarri laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa?**

- a) Telelaguntza
- b) Egoitza-arreta, 16 ordu edo gutxiagokoa.
- c) Aldi baterako egoitza-egonaldia, urtean 30 egun baino gutxiagokoa.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**56-11421/2003 Foru Aginduak ezartzen duenez, Gizarte Ongizateko Funtsaren gaixotasunagatiko edo baliaezintasunagatiko pentsioak jasotzeko, ezinbesteko baldintza da edozein lanetarako ezgaitua izatea, eta, horretarako, portzentaje batetik gorako ezgaitasun funtzionala edo organikoa izatea. Zein da portzentaje hori?**

- a) % 33tik gorako ezgaitasun funtzionala edo organikoa eta lan egoeraren sailkapenean unitate kopuru zehatza edo gehiago izatea.
- b) % 45etik gorako ezgaitasun funtzionala edo organikoa eta lan egoeraren sailkapenean unitate kopuru zehatza edo gehiago izatea.
- c) % 45.
- d) % 33.

**57-Zertarako dira mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako GIZATEK programaren barruko laguntza-produktuak?**

- a) Partaidetza eta gizarteratzea errazteko beren jardunean mugak eta/edo murriztapenak dituzten pertsonen.
- b) Gorputzeko funtzioak/egiturak eta jarduerak babesteko, laguntzeko, entrenatzeko, neurtzeko edo ordeztzeko.
- c) Urritasunak, jarduera-mailako mugapenak edo parte hartzeko murrizketak prebenitzeko.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**58-Gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duen 2019ko maiatzaren 21eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretuaren arabera, zein da funtsezko tresna gizarte-inklusioaren arloko arreta pertsonalizatuari lotutako zerbitzuen erabiltzaileekin egiten den esku-hartzea artikulatzeko?**

- a) Arreta pertsonalizatuko plana
- b) Arreta eskaintzeko banakako programa
- c) Laguntzeko plan indibiduala
- d) Arreta programa pertsonalizatua

**59-Zenbateko indarraldia izango du gizarte-bazterketako egoeraren ebaluazioaren ebazpenak?**

- a) Urte 1.
- b) 2 urte.
- c) 6 hilabete.
- d) 5 urte.

**60-Zer eratako programak dira gizarteratzearen arloan gazteentzako arreta eskaintzeko esku hartzeko programa espezifikoak?**

- a) Bazterketa prebenitzekoak.
- b) Egonaldi ertainekoak.
- c) Emantzipazio-prozesuetan laguntzekoak.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**61-Gizarte Bazterkeriari buruzko 2013ko uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuaren eranskinean aurreikusten denaren arabera, zein baieztapen dagokio gizarte-bazterkeriari?**

- a) Egoera horretan dago pertsona bat, baldin eta iraun egiten duten gabezia ugarik haren bizi-baldintzei eta bizikidetzaren baldintzei eragiten dietenean.
- b) Gizarte-bazterkeria intentsitate handikoa, ertainekoa edo baxukoa izan daiteke, pertsonak dituen lotura afektiboan eta babes-sarean arabera.
- c) Egoera horretan dago pertsona bat, baldin eta gabeziak baditu etxebizitzan, parte-hartze sozialean eta zerbitzuak baliatzean.
- d) Gizarte-bazterkeria lotuta dago baliabide ekonomikoaren gabeziarekin eta lan-arloan parte-hartzerik ez izatearekin.

**62-2013ko uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuaren arabera, zein arlori dagokio Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresnaren 5. dimentsioa, lotura afektiboak eta gizarte babesaren jasotzeari buruzkoa?**

- a) Ekonomia, lana eta egoitza.
- b) Soziala.
- c) Osasuna.
- d) Bizikidetzaren.

**63-2013ko uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuan onartutako Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna aplikatzearen ondoriozko egoerak zein diagnostiko-kategoriatan sailkatzen dira?**

- a) Handia, ertaina-handia, ertaina-txikia, txikia, bazterketarik gabe.
- b) Gizarteratzea, gizarte bazterkeriako arriskua, gizarte-bazterkeria.
- c) Informazioz gabe, arriskurik gabe, susmoa, arina, moderatua, larria, gizarte-bazterkeria.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**64-Zer izaera du gizarte-inklusiorako laguntza bereziak?**

- a) Osagarria, besterengarria eta puntuala.
- b) Finalista, bateragarria eta besterenezina.
- c) Finalista, subsidiarioa, osagarria eta transferiezina da.
- d) Subsidiarioa, alternatiboa eta ez-finalista.



**65-Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duen 2003ko uztailaren 31ko 27/2003 Legeak ezartzen duenez, zenbat denborarako indarra izango dute babes-aginduan jasotako izaera zibileko neurriek hasiera batean?**

- a) 48 ordu.
- b) 72 ordu.
- c) 30 egun.
- d) Urte 1.

**66-Genero indarkeriaren aurkako erabateko babeserako neurriei buruzko 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak gizarte-laguntza integralerako eskubidea zehazten du bere 19. artikuluan, eta ezartzen du genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek eskubidea dutela zerbitzu batzuk jasotzeko. Zein dira?**

- a) Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak.
- b) Lan orientazioa.
- c) Arretako gizarte-zerbitzuak, larrialdiko zerbitzuak, laguntza eta harrerakoak, eta berreskuratze integralekoak.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**67-Genero indarkeriaren aurkako erabateko babeserako neurriei buruzko 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak ordainketa bakarreko laguntza bat ezartzen du genero-indarkeriaren biktimek errenta handiagorik ez dutenerako. Zein izango da laguntza horren hileko zenbatekoa?**

- a) Lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75, aparteko ordainsari bien parte proportzionalik gabe.
- b) Lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.
- c) Lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**68-Genero indarkeriaren aurkako erabateko babeserako neurriei buruzko 2004ko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, nola egiaztatzen dira genero-indarkeriazko egoerak?**

- a) Bakarrik genero-indarkeriagatiko kondena-epai baten bitartez.
- b) Bakarrik edozein polizia-kidegoren txosten baten bitartez.
- c) Bakarrik honako hauen txosten baten bitartez: gizarte-zerbitzuak, zerbitzu espezializatuak edo genero-indarkeriaren biktimenezako harrera-zerbitzuak.
- d) Genero-indarkeriagatiko kondena-epai baten bitartez, babes-agindu baten bitartez edo biktimaren aldeko kautela-neurri bat hartzea erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizialen bitartez, nahiz Ministerio Fiskalaren txosten baten bitartez. Halaber egiaztatu ahal izango da gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimenezako harrera-zerbitzuen txosten baten bitartez nahiz beste edozein tituluren bitartez.

**69-Zein faktorek murrizten dute genero-indarkeriaren arriskua?**

- a) Gizarte- eta familia-babeseko sare bat izatea.
- b) Ez izatea substantzia toxikoekiko dependentziarik.
- c) Zerbitzu publikoek esku-hartzean genero-ikuspegia jasotzea emakumeen ahalduzkoen alde lan egitean.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**70-Noiz jotzen da adingabeak genero-indarkeriaren biktima direla?**

- a) Zuzeneko erasoak jasaten dituztenean edo gurasoen arteko indarkeria ikusten dutenean.
- b) Indarkeriazko harremanak eta botere-abusua nagusi diren ingurunean bizi direnean.
- c) Zuzeneko erasoak jasaten dituztenean baino ez.
- d) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.

**71-Kontuan harturik zer dioen Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresnak, umeen eskeketasuna da dirua nahiz baliabide materialak lortzea leku publikoetan. Zeren arabera ezartzen da, batez ere, horren larritasun-maila?**

- a) Zenbatean behin eta zer baldintzatan ibiltzen diren gurasoak eskean.
- b) Eskean ibiltzen den aitak edo amak umeari mehatxu egitea edo hura behartzea.
- c) Zenbatean behin eta zer egoeratan ibiltzen den umea nahiz nerabea eskean.
- d) Non ibiltzen den eskean.

**72-Kontuan harturik zer dioen Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresnak, zertan datza «abandonua»ren eta «artatzearen zabarkeria»ren arteko aldea?**

- a) Agintaritzaren agenteen balorazioa.
- b) Aitak, amak edo tutoretza nahiz zaintza duten pertsonen asmoa izatea, esplizitua edo behagarria, berrio egiteko umearen nahiz nerabearen kargu. Epe laburreko abandonu-kasuetan, ez da izaten halako asmorik.
- c) Ume nahiz nerabearen adina.
- d) Egintza egiten den lekua.

**73-Lurraldeko gizarte-zerbitzuetan garatzen dira familiak berriz elkartzeko programak, non esku-hartze bat ematen zaien, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean, arrisku larriko nahiz babesgabetasuneko egoeran dauden ume nahiz nerabeak dituzten familiei, legezko babes-neurri bat hartzea behar izan denean. Zein dira halakoen helburu nagusiak?**

- a) Guraso-irudiak gaitzea babes-betekizunak egoki egin ditzaten.
- b) Babesgabetasunak ume nahiz nerabearengan eragin dituen ondorioak zuzentzea.
- c) Babesgabetasuna berriro ager dadin saihesteko behar diren baldintzak ezartzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**74-Babes-plan indibidualaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoan umeak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan, zer xede jasotzen da?**

- a) Ebaluazioa eta familiako esku-hartzea.
- b) Familia babestea.
- c) Behin betiko banaketa eta beste familia batean integratzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**75-Zer dakar berekin erakunde publikoari esleitutako adingabeen tutoretza hartzeak?**

- a) Guraso-ahala etetea.
- b) Kuradore bat izendatzea.
- c) Guraso-ahala kentzea.
- d) Ez dakar inolako aldaketarik guraso-ahala egikaritzean.

**76-Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Legearen 14. artikularekin bat, zer neurri har dezake erakunde publikoak adingabe batek behar duen berehalako arreta emateko?**

- a) Borondatezko zaintza.
- b) Behin-behineko zaintza.
- c) Tutoretza.
- d) Kuradoretza.

**77-Iraupena kontuan hartuta, zer modalitate ditu familia-harrerak?**

- a) Premiako familia-harrera.
- b) Aldi baterako familia-harrera.
- c) Familia-harrera iraunkorra.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**78-Zer baldintza bete behar dituzte administrazio publikoak tutoretzapean dituen adingabeen adoptatzaileek?**

- a) Adoptatzaileetako bat gutxienez 30 urtetik gorakoa izatea.
- b) Adoptatzailearen eta adoptatuaren artean hamasei urteko adin-tartea izatea gutxienez.
- c) Adoptatzailearen eta adoptatuaren arteko adin-tartea ezin da izan berrogeita bost urte baino gehiago.
- d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.

**79-Nola ulertzen dugu administrazio publikoak tutoretzapean dituen adingabeen adopzioa? Familia-eskubideko instituzio bat da, eta, horren bitartez, adingabea:**

- a) Beste pertsona baten edo batzuen familian integratzen da, filiazio biologikoak eragiten dituen ondorio berekin, eta hautsi egiten dira bere aurreko familiarekin zituen odol-loturak.
- b) Beste pertsona baten edo batzuen familian egokitzen da, filiazio biologikoak eragiten dituen ondorio berekin, eta kontatua izaten du aldian-aldian bere lehengo familiarekin.
- c) Oso-osorik integratzen da beste pertsona baten edo batzuen familia-bizitzan, filiazio biologikoak eragiten dituen ondorio berekin, eta hautsi egiten dira hark aurreko familiarekin zituen lotura juridikoak.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**80-Esku-hartzeko prozesu teknikoan, Euskal Autonomia Erkidegoan umeak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan, zein da harreraren helburua?**

- a) Berehala kontu egitea jakinarazpen edo salaketa guztiei, eta geroko ikerketetarako artxibatzea.
- b) Berehala kontu egitea jakinarazpen edo salaketa guztiei, eta zehaztea ea Foru Aldundiaren eskumenekoa den eta zer lehentasun- edo urgentzia-maila dagokion.
- c) Jakinarazpena jaso, eta dagokion udaleko gizarte-zerbitzura bideratzea.
- d) Lehentasun-maila jasotzea, eta zerrenda bat ezartzea jasotako jakinarazpenekin.

## **ERRESERBAKO GALDERAK**

**81-Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 32. artikulua araberan, probintziaren antolakuntzak arau hauek ditu:**

- a) Diputazio guztietan lehendakaria, lehendakariordeak, gobernu-batzarra eta osoko bilkura daude.
- b) Diputazio guztietan lehendakaria, kontseilariak eta osoko bilkura daude.
- c) Diputazio guztietan lehendakaria, kontseilariak eta gobernu-batzarra daude.
- d) Diputazio guztietan lehendakaria, diputatuak eta diputazio iraunkorra daude.

**82-Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47. artikulua araberan, erabat deusezak izango dira:**

- a) Beheragoko mailako xedapenak urratzen dituzten administrazio-xedapenak.
- b) Konstituzioa, legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak urratzen dituzten administrazio-xedapenak.
- c) Epez kanpo ematen diren administrazio-xedapenak.
- d) Aldekoak ez diren edo eskubide indibidualak murrizten dituzten xedapen zehatzaileen atzeraeraginik eza ezartzen duten administrazio-xedapenak.

**83-Honako prestazio ekonomiko hauetatik, zein jasotzen du beren-beregi bere 16. artikuluan Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak?**

- a) Gizarte-laguntza informala eskaintzen duten pertsonari lagundu eta ordaintzeko prestazioak, beren kasa baliatzeko eta gizarteratzeko laguntza behar duten pertsonak zaintzen dituzten senitartekoentzat.
- b) Banan-banako edo familientzako prestazioak, oinarritzko beharizanei erantzuteko ondasun materialak eskuratzeko, prestazio teknologikoak eskuratzeko, izan berreskuragarriak zein ez-berreskuragarriak, familiak eta taldeak beren kasa baliatzeko eta gizarteratzeko laguntza emateko.
- c) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak pertsonari kontu egin bitartean aldi baterako ordezkotzia ordaintzeko prestazioak, etxegabetasun-egoerak arintzeko.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**84- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera, premiei erantzuteko baliabideak edo baliabide-konbinazioak duen egokitasun-maila premiazko baldintza espezifikoekin lotutako elementu batzuen arabera izango da. Zein dira elementuok?**

- a) Pertsonaren, familiaren, bizikidetasunaren eta harremanaren egoeraren egokitasun-maila handia edo txikia izatea, bai eta eskatutako laguntza mota eta intentsitatea eskatzeko gaitasuna handiagoa edo txikiagoa izatea ere.
- b) Arreta intentsitaterik eta maiztasunik handienarekin eskaintzeko gaitasuna izatea, ahalik eta eperik laburrenean berrezartzeko autonomia.
- c) Lehen mailakoa edo bigarrenkoa izatea, balorazioa eta diagnostikoa egiten dituen administrazioaren arabera.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**85-Gizarte-inklusioaren arloan esku hartzeko prozedura espezializatua arautzen duen 2019ko maiatzaren 21eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2019 Foru Dekretuaren arabera, zein da betekizun espezifiko bat gizarte-inklusioko zerbitzuak eskuratzeko?**

- a) Gizarte-bazterketaren edo gizarte-bazterketako arriskuaren kategoria diagnostikoan egotea gizarte-bazterketa ebaluatzeko tresnaren I. irizpidearen arabera
- b) Norberaren egoeraz jakitun izatea eta egoera hori aldatzeko motibazioa izatea; horrek esan nahi du pertsona prest dagoela bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen esku-hartzea onartzeko.
- c) Bigarren mailako gizarte-inklusioaren arloko gizarte-zerbitzuen laguntza-intentsitate ertain edo handiko esku-hartzea behar izatea.
- d) Patologia mentaleko diagnostikoa duten pertsonen kasuan, gaixotasunaz kontzientea izatea.

**86-Arreta Goiztiarreko Zerbitzu Publikoaren prestazioa arautzen duen urriaren 24ko 125/2017 Foru Dekretuaren arabera, hauetatik zein dira Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldearen (AGET) eginkizunak?**

- a) Kasuari buruzko garrantzizko informazioa biltzea, baita haurren eta haur horien familien beharrianak baloratzea, beharrianen balorazio hori oinarritzat hartuta, hau bakoitzerako pertsonalizatutako arreta-plan bat prestatzeko.
- b) Hiru sistemek Bizkaian ematen duten arreta goiztiarrari buruzko informazioa koordinatzea eta kudeatzea.
- c) Arretaren koordinatzaile bat izendatuko da. Hark egingo die harrera umeari eta haren familiari, eta bera izango da erreferentea, bai familiarentzat, bai umearen arretaz arduratzen den arreta goiztiarreko esku-hartze taldearentzat.
- d) Umeari, haren familiari eta inguruneari diziplina anitzeko arreta terapeutikoa ematea.

**87-Desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren arabera eta hura aldatzen duen abenduaren 4ko 1856/2009 Errege Dekretuaren arabera, jardueraren mugen balorazioaren gutxieneko ehunekoa –zeinaren gainean faktore sozialen baremoa aplikatu ahal izango baita–, ezin izango da ehuneko honetatik beharkoa izan:**

- a) % 30.
- b) % 25.
- c) % 15.
- d) Ez dago gutxieneko ehunekorik.

**88- Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 29. artikulua ezartzen duenaren arabera, zein da zuzena?**

- a) Eusko Jaurlaritza Euskal Autonomia Erkidegoko betearazpen- eta aurrekontu-funtzioak betetzen dituen kide anitzeko organoa da.
- b) Eusko Jaurlaritza Euskal Autonomia Erkidegoko betearazpen-funtzioak betetzen dituen kide anitzeko organoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde-boterea bultzatu eta kontrolatzen du..
- c) Eusko Jaurlaritza Euskal Autonomia Erkidegoko betearazpen- eta administrazio-funtzioak betetzen dituen kide anitzeko organoa da.
- d) Eusko Jaurlaritza Euskal Autonomia Erkidegoko betearazpen- eta jurisdikzio-funtzioak betetzen dituen kide anitzeko organoa da.

**89-Gizarte lan indibidualizatuaren gakoa honako hau da:**

- a) Harremana.
- b) Arazoak.
- c) Gizarte-laneko profesionalaren egiten jakitea.
- d) Erabiltzaileak.

**90-Zein dira gizarte-lan komunitarioko profesionalaren eginkizunak?**

- a) Egokitzapen soziala, baliabideak eta beharrianak orekatzea, garapen-prozesuan biztanleek parte hartzea lortzea.
- b) Antolaketa komunitarioa, garapen komunitarioa, animazio komunitarioa.
- c) Herritarren arteko gatazkak konpontzen laguntzea, taldeen arteko harremanak ezartzea, kideei antolatzen laguntzea.
- d) Zuzenketa-, prebentzio-, informazio-, orientazio-, trebakuntza-, sustapen-, baliabideen hornikuntza- eta tratamendu sozialaren eginkizuna.



